

Jaiotzak %0,9 urritu ziren 2011ko hirugarren hiruhilekoan

Araban bakarrik hazi da bizirik jaiotakoen kopurua

Euskal AEn jaiotako haur kopurua: 2011ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 5.289 haur jaio ziren, iazko aldi berean baino %0,9 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Araban 885 haur jaio ziren, %9,8 gehiago; Bizkaian 2.622, %0,7 gutxiago; Gipuzkoan 1.742, %5,8 gutxiago.

Jaiotzen %79,2tan amak 30 urte baino gehiago zituen

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitziren erditzeen %41. Ondoren, goragoko taldea dago, hau da, 35-39 urte artekoa (%32,2); 25-29ko taldea beherago geratu da, erditzeen %15,2 ekarri baititu. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amaten direnak %5,6 dira, eta 40 urtez gorakoen taldean jaiotzen %6 gertatu da.

Ezkontzaz kanpoko jaiotzak %34,6 izan ziren; aurreko urteko aldi berean %32,8. Ama ezkongabeen batez besteko adina, 31,6 urte; dibortziatu eta alargunena, 35 urte baino zertxobait gehiago. Ezkondutakoek, hiruhileko honetan eta batez beste, haurrak 33,3 urterekin izan zituzten.

Atzeritarrak 4 urte lehenago amaten dira espainiarrak baino

2011ko udako hiletan Euskal AEn amatutakoen arteko %16,1 atzeritarrak ziren. Ehuneko horren gainetik, Araba, %21,4; Bizkaian %15,8 eta Gipuzkoan %13,9.

Amatzeko adina aldatu egiten da naziotasunaren arabera. Atzeritarrena, 29,4 urte batez beste; espainiarrena, 33,5.

Bigarren eta hurrengo haurrak %13 ugaritu ziren Araban

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2011ko hirugarren hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.936 haur, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.928 haur (%36) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi ziren; hirugarren eta ondorengo seme-alabak, %8.


Aurreneko haurra izan duten emakume kopurua %3 jaitsi da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean; bigarren eta ondorengo seme-alabak %2 hazi dira. Hazkunde hau Araban gauzatu da batik bat, %13; Gipuzkoa eta Bizkaian %0,1.

1. taula: Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Alderaketa taula.

	2011ko 3. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2011ko 2. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2010eko 3. hiruhil.)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	5.289	100,0	5.340	100,0	5.337	100,0
Araba / Álava	885	16,7	839	15,7	806	15,1
Bizkaia	2.662	50,3	2.718	50,9	2.681	50,2
Gipuzkoa	1.742	32,9	1.783	33,4	1.850	34,7
Amaren adinaren arabera	5.289	100,0	5.340	100,0	5.337	100,0
≤ 24 urte	298	5,6	295	5,5	330	6,2
25 - 29 urte	802	15,2	821	15,4	829	15,5
30 - 34 urte	2.168	41,0	2.258	42,3	2.310	43,3
35 - 39 urte	1.703	32,2	1.679	31,4	1.565	29,3
≥ 40 urte	318	6,0	287	5,4	303	5,7
Amaren egoera zibilaren arabera	5.289	100,0	5.340	100,0	5.337	100,0
Ezkondua	3.461	65,4	3.596	67,3	3.585	67,2
Ezkongabea	1.828	34,6	1.744	32,7	1.752	32,8
Jaiotza-hurrenkera	5.289	100,0	5.340	100,0	5.337	100,0
Lehenengoa	2.936	55,5	2.855	53,5	3.032	56,8
Bigarrena	1.928	36,5	2.043	38,3	1.904	35,7
Hirugarrena edo gehiago	425	8,0	442	8,3	401	7,5

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko jaiotzen estatistika

1. grafikoa: jaiotzen hileko mugimendua (100 oinarri=batez bestekoa)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua